

**TEKNOLOGIA BERRIAK.** Euskarazko bertsio berria CD bitartez edo Internetetik hartuta lor dezakete erabiltzaileek

# Linux 8.2 sistema eragilea euskaratu du Eusko Jaurlaritzak

Openoffice software libreko ofimatika paketea urtarrilerako euskaratu eta argitaratu nahi dute

Nagore Rodriguez | DONOSTIA


Eusko Jaurlaritzak euskarara ekarri du software libreko Linux 8.2 sistema eragilea. Mandrake-Linux 8.2 sarearen eta CDen bidez eskura daiteke.

Euskarazko bertsioa doan jasotzeko, Interneteko [www.mandrake.com](http://www.mandrake.com) helbidera jo behar da. CDak, bereziki, ikastetxeei eskainiko zaizkie. Horretarako, interesa dutenek eskaria egin beharko dute, eta

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak CDa bidaliko die. Gainera, instalazioa eta oinarriko ikastaroak eskainiko dira. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuaren bidez ere lor daiteke. CDaren prezioa 3 eurokoa da.

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak atzo adierazi zuenez, Hizkuntza Politikako Sailburuordetza eta EJIE lanean ari dira orain OpenOffice software libreko ofimatika-paketea euskarara ekartzeko, eta 2003ko urtarrilean kalera ateratzea espero dute. Era horretan, software askeko sistema eragilea eta ohiko erabilerrako tresnak euskaraz izango dituzte erabiltzaileak.

Mandrake-Linux 8.2 sistema eragilea euskaratzerakoan, Hizkuntza Sailburuordetza hizkuntzaren kalitateaz arduratu da,



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS  
Agustin Elizegi, Miren Azkarate eta Xabier Arrieta, atzoko aurkezpenean.

eta EJIE arlo teknikoaz. Itzulpen lana, berriz, Elhuyar eta UZEI enpresek egin dute. Banaketa sistemaz arduratzeko Mandrake Frantziako enpresa aukeratu du Jaurlaritzak, erabiltzaile arruntentzat sistema deskargatzeko modu errazena delako.

Euskarak azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien arloan

egin dituen aurrerapenak «nabarmenak» izan direla esan zuen Azkaratek, eta hauexek aipatu, besteak beste: sarean jarritako prentsa idatzia, euskaraz egindakoak; web orriak; sarean euskarri elektronikoan kontsultagai jarritako corpusak, hiztegiak, zuzentzaile ortografikoa eta gainerako tresnak, eta hizkuntzaren urrutiko hezkuntza-

rako eta irakasleak trebatzeko sortutako leku birtualak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Microsoften hainbat produktu euskaratu dituela gaineratu zuen, hala nola Word 6, Windows 95 eta 98 eta Office 2000.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian eta Euskadi Informazio Gizartean Planean aurreikusitako xedearen bidetik dator proiektua.

## EUSKARA. Azaroaren 23an egingo dute



## EHEk ezabaketa egunera deitu du

Euskal Herrian Euskaraz elkartek (EHE) ezabaketa eguna egingo du larunbatean, hilaren 23an. *Aski da! Hizkuntza Eskubideak bermatu!* lelopean, ekimen ugari egingo dituzte Euskal Herriko herri eta auzoetan; Iruñean, eskualdeko manifestazioa egingo dute, arratsaldeko 17:30ean autobus geltokitik abiatuta. Ezabaketa eguna aurkezteko, gaztelaniaz idatzita zegoen PPrent kartel bat tindatu zuten atzo Donostian. Hizkuntza eskubideen alde egitea «inoiz baino beharrezkoagoa da», taldeko kideek esan zuten.



# Sopelana -ko Udala

IRAGARKIA	ANUNCIO
<p><b>Sopelana Udal honetako Gobernu Batzordeak, 2002ko Urriaren 29an egindako bileran, beste batzuen artean, zera erabaki zuen:</b></p> <p>1.- Hasiere batez onartzen da udalerrir honetako Bareño sektoreko zati plana, Ricardo del Campo eta Gerardo Gorostiza arkitektoek eta José Angel Bilbao abokatuak idatzia. Adierazten da, halaber, behin behingoz onartu baino lehenago ondoko zuzenketa hauek egin beharko direla:</p> <p>a) 29. artikuluan azken leerroaldean, kendu egingo da "zehetasun azterlanak alda dezake" esaldia.</p> <p>b) 4. puntuan, etapa planei buruzkoan, laburtu egin beharko dira sektorea urbanizatze obrak egiteko epea eta eraikuntza lizentzia eskatzeko epea.</p> <p>c) Babes publikoko etxebizitzak egiteko aldean, eraikinek 3 solairu izango dituzte sestraren gainetik, eta, gehienez ere, 9 metroko garaiera.</p> <p>2.- Adierazten da, batetik, zati plana behin behingoz onartu baino lehenago kanpoko urbanizazioaren hitzarmena eta deskribapen grafikoa aurkeztu beharko direla, eta, bestetik, zati plana behin betiko onartu baino lehenago hitzarmena beteazteko bermea aurkeztu beharko dela.</p> <p>3.- Lehenengo eta bigarren egitateetan aipatzen diren alegazioak espedientearen sartuko dira, aztertu ahal izan daitezken.</p> <p>4.- Bareño sektoreko zati plana hamabost eguneguz egongo da jendaurrean, eta horretarako iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, bai eta Deia, Egunkaria eta El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkarietan ere, udal arkitektoak idatzia. Izan ere, Bareño sektoreko zati planaren arabera, babes publikoko etxebizitzak egiteko aldean eraikinek 3 solairu izango dituzte sestraren gainetik, eta, gehienez ere, 9 metroko garaiera; eta, horrek aldagata bat dakarrenez arau subsidiarioetan, gaur, 2002ko urriaren 29an, Udaltzako hasiera batez onartu du Sopelana Udal Arau Subsidiarioak aldatzea, horrela 3 solairuko eraikinak egin ahal izango baitira lurzoru urbanizagarriko Loloia, Zaldu, Asu, Bareño eta Ripa sektoreetan, bai eta zati planetan babes publikoko etxebizitzak egiteko xedea duten aldeetan ere.</p> <p>5.- Bareño sektorearen eremuan, etenda geratzen da honako lizentzia hauek ematea: lur sailak birzartzeko lizentziak, eraikitze lizentziak eta eraisteko lizentziak.</p> <p>Lizentziak emateko etanak bi urte iraungo du, Bareño sektoreko zati plana hasiera batez onartzen denetik aurrera. Nolanahi ere, Bareño sektoreko zati plana behin betiko onartzen denean, iraungi egingo da aipatutako etena.</p> <p>6.- Zati plana behin behingoz onartzeko, aurretiaz, Estatuko Administrazioari eskatutako txostena jaso beharko da.</p> <p>7.- Adierazten da, halaber, zati plan hau behin betiko onartu baino lehenago, ezinbestez behin betiko onartu beharko dela "Loloia, Zaldu, Asu, Bareño eta Ripa sektoreetako Arau Subsidiarioen aldagata" deritzen proiektua ere, udal arkitektoak idatzia. Izan ere, Bareño sektoreko zati planaren arabera, babes publikoko etxebizitzak egiteko aldean eraikinek 3 solairu izango dituzte sestraren gainetik, eta, gehienez ere, 9 metroko garaiera; eta, horrek aldagata bat dakarrenez arau subsidiarioetan, gaur, 2002ko urriaren 29an, Udaltzako hasiera batez onartu du Sopelana Udal Arau Subsidiarioak aldatzea, horrela 3 solairuko eraikinak egin ahal izango baitira lurzoru urbanizagarriko Loloia, Zaldu, Asu, Bareño eta Ripa sektoreetan, bai eta zati planetan babes publikoko etxebizitzak egiteko xedea duten aldeetan ere.</p>	<p><b>La Comisión de Gobierno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada con fecha 29 de Octubre de 2002, entre otros, adoptó el acuerdo cuya parte dispositiva es la siguiente</b></p> <p>1.- Aprobar inicialmente el Plan Parcial del Sector Bareño de este Municipio, redactado por los Arquitectos D. Ricardo del Campo y D. Gerardo Gorostiza y por el Abogado José Angel Bilbao, significando que con carácter previo a la aprobación provisional deberá ser objeto de las siguientes correcciones:</p> <p>a) En el último párrafo del Artículo 29 se suprimirá la frase "modificable por el Estudio de Detalle".</p> <p>b) En el punto 4, relativo al Plan de Etapas, deberán reducirse los plazos respecto a la ejecución de las obras de urbanización del Sector y solicitud de Licencia de Edificación.</p> <p>c) En la zona destinada a vivienda de protección pública, la edificación se contemplará con 3 plantas sobre rasante con un límite de 9 metros de altura.</p> <p>2.- Significar que con carácter previo a la aprobación provisional, deberá presentarse convenio y descripción gráfica de la urbanización exterior, y que con carácter previo a la publicación de la aprobación definitiva deberá presentar garantía para la ejecución del convenio anteriormente indicado.</p> <p>3.- Incorporar al Expediente las alegaciones a las que se hace mención en los Resultandos primero y segundo, con el fin de que sean estudiadas.</p> <p>4.- Someter el Plan Parcial del Sector Bareño, a información pública durante el plazo de quince días, mediante Anuncio en el Boletín Oficial del Bizkaia, en los diarios Deia, Egunkaria y El Correo Español-El Pueblo Vasco y Tablón de Anuncios. El mencionado plazo se contará a partir del día siguiente a la publicación del Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia. Igualmente, se notificará a los propietarios que figuran en las páginas 17, 18 y 19 del Texto de dicho Plan Parcial del Sector Bareño, a los efectos de que durante igual plazo presenten alegaciones, si lo estiman oportuno.</p> <p>5.- Suspender la concesión de Licencias de Parcelación de terrenos, edificación y demolición en el Área del Territorio que comprende el Sector Bareño.</p> <p>La suspensión de las Licencias tendrá una duración de dos años a contar desde la Aprobación Inicial del Plan Parcial del Sector Bareño. En cualquier caso, la suspensión se extinguirá con la Aprobación Definitiva del Plan Parcial del Sector Bareño.</p> <p>6.- En todo caso, la aprobación provisional se efectuará una vez se reciba el informe solicitado a la Administración del Estado.</p> <p>7.- Significar que al pretender este Plan Parcial para el Sector de Bareño que en la zona destinada a vivienda de protección pública, la edificación sea de 3 plantas sobre rasante con un límite de 9 metros de altura y al haberse aprobado inicialmente por el Pleno del Ayuntamiento hoy día 29 de Octubre de 2002, la modificación de las Normas Subsidiarias de Sopelana para que en los Sectores del Suelo Apto para Urbanizar de: Loloia, Zaldu, Asu, Bareño y Ripa y para las zonas destinadas en los Planes Parciales a vivienda de protección pública, la edificación sea de 3 plantas sobre rasante con un límite de 9 metros de altura, la aprobación definitiva de este Plan Parcial queda condicionada a la aprobación definitiva previa del Proyecto redactado por el Arquitecto Municipal denominado "Modificación Normas Subsidiarias en los Sectores: Loloia, Zaldu, Asu, Bareño y Ripa".</p>

Sopelana, 2002ko Azaroak 14. ALKATEA Sopelana, 14 de Noviembre de 2002. EL ALCALDE